



## BEZERO SEGMENTUA

Hainbat merkatu mota daude, bezeroen segmentazioren arabera

### **Merkatu masiboa**

Antzerako beharrak eta arazoak dituzten kontsumitzaileen talde handia da. Bai balorezko proposamenak, bai banaketa kanalak, eta bai bezeroarekiko harremanak talde handi eta bakar batean oinarrituta daude, zeinak antzeko beharrianak eta arazoak dituen.

### **Merkatu-nitxoa**

Bezero oso zehatzak eta berezitutak dituen segmentua da. Hemen, balorezko proposamenak, banaka kanalak eta bezeroarekiko harremanak hartzaillearen neurria diseinatuak egon behar dira.

### **Segmentatutako merkatua**

Behar eta arazo zertxobait ezberdinak dituzten merkatu-segmentuak bereizten dituzten negozio-ereduak dira.

### **Dibertsifikatutako merkatua**

Mota honen baitan dauden enpresek oso bestelako produktuak eskaintzen dizkiete zeharo ezberdinak diren eta elkarren artean loturarik ez duten bezeroen segmentuei.

### **Plataforma edota merkatu aldeaniztunak**

Merkatu horien oinarria da ezberdinak baina bata bestearen mendekoak diren erabiltzaile-segmentuak negozio-eredu beraren pean lotzea.

Gure bezero segmentua merkatu nitxo batean oinarrituko da; izan ere, bezero oso zehatzak eta berezituak izango ditugu. Gure bezeroen ezaugarri nagusien artean hurrengoak ditugu: 18 eta 40 arteko pertsonak, istorio errealak gustoko dituztenak eta entretenimenduz gain ikuslearen hausnarketa bilatzen dutenak.